

**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKIKO ZERBITZUKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN AGINDU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikulua arabera, Autonomia Erkidego honi dagokio, Konstituzioaren 1. xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz, irakaskuntzaren arloko eskumena, bere luze-zabalean, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Konstituzioaren 27. artikulua eta berau gara dezaketen lege organikoek kalterik egin gabe, eta 149.1.30 artikulua Estatuari egozten dizkion goi-ikuskaritza ahalmenak urratu gabe. Ondorioz, Autonomia Erkidego honi dagokio hezkuntza-zerbitzuen arloa, besteak beste, eskola-jantokiko zerbitzu osagarria. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da funts propioak dituzten beken eta laguntzen araubidea.

Testuinguru horretan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 31. artikulua jarraikiz, izaera publikoko eskubide gisa sailkatzen dira "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren erakunde autonomoei eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagozkienak, erakunde horiek ahalmen publikoen titular diren harreman eta egoera juridikoen ondorioz".

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 30. artikulua honela definitzen du prezio publikoa: "Zuzenbide publikoko erregimenean egindako jarduera edo zerbitzuengatik ordaintzen diren diru-ordainak, baldin eta jarduera horiek ez badira tasatzat hartzen". Gainera, arau horren 33. artikulua ezartzen duenez, prezio publikoen zenbatekoa "horiek jaso behar dituen organo edo erakundea mende duen saileko sailburuaren aginduz ezarriko da, organo edo erakunde horrek proposatuta".

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuak arautzen ditu prezio publikoak ordaintzeko eska daitezkeen zerbitzu eta jarduerak. Hain zuzen ere, eranskinaren bosgarren atalean, hezkuntza eta unibertsitate gaietan eskumena duen sailari buruzkoan, eskolako jantoki-zerbitzua jasotzen da.

Eskola-jantokiak arautzeko agindu berri bat izapidetzeak agerian utzi du gaiaren zenbait alderdi arautu behar direla horretarako espreski onartutako Hezkuntzako sailburuaren agindu batean. Zehazki, aurreko paragrafoetan azaldutako araudiari jarraikiz, jankideen kuotei, haien murrizketei edo salbuespenei, eta horiek eskatzeko, kobratzeko eta ebazteko prozedurari dagokiena.

Izan ere, kontuan hartzekoa da gaur egun eskola-jantokiak arautzen dituen araua 2000. urtekoa dela eta orain arte ez dela inolako erreformarik egin.

Hala ere, Sailaren asmoa da gai hori arautzeko beste agindu bat onartzea, euskal hezkuntza-sistema osatzen duten pertsonen zein erakundeen egungo interesetara





egokituko dena eta, aldi berean, haien premiei erantzungo diena. Hori dela eta, aintzat hartu behar dira Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2023ko urriaren 30eko txostenean egindako gogoetak, eta dagokion arau-xedapenean aipatutako alderdiak arautu.

Horrenbestez, aipatutako guztiagatik, agindu bat argitaratzea erabaki da, honako hauek arautzeko: eskola-jantokiko zerbitzu-kuotak, horren salbuespenak eta/edo murrizketak, bai eta horiek eskatzeko, ebazteko eta, hala badagokio, kobratzeko prozedura ere.

Aitzitik, argitu behar da arau-proiektu honen bidez ez direla aldatzen kuoten zenbatekoak, ez murrizketarako edo salbuespenetarako baldintzak, ez eta horiek eskatzeko, ebazteko eta kobratzeko prozedura ere. Funtsean, gaiaren erregulazioa indarrean dagoen legeriak galdatutako arau-xedapenean jasotzea da xedea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen helburua da xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea, eta 12.1 artikuluan ezartzen du prozedura horiek dena delako gaian eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla. Era berean, lege horren 13.1 artikulua hasteko agindu horrek bete behar dituen baldintzak eta gutxieneko edukia ezartzen ditu.

Azpirarratu behar da bete egin dela herritarrentzako aurretiazko kontsultaren izapidea (alegaziorako epea 2023ko azaroaren 9tik 29ra igaro zen), 11. 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena, alegaziorik jaso gabe. Izapide hori nola bete kontsulta daiteke esteka honetan: [AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAIO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKIAK ARAUTZEN DITUEN AGINDU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI - Eusko Jaurlaritza \(euskadi.eus\)](#)

Hala ere, lege horren 6. artikulua aurreikusten du presako prozeduraren bidez izapidetzea, behar bezala justifikatutako kasuetan. Prozedura horrek aukera ematen du, alde batetik, txostenak edo alegazioak egiteko epeak laburtzeko, betiere aurreikusitako epeen erdia baino laburragoa ez bada; eta, bestetik, aukera ematen du aurreikusitako izapideetako batzuk alde batera uzteko, lege-maila edo -indarra duten arauak nahitaezkoz jotzen ez badituzte. Hain zuzen ere, presazko prozedura behar da proiektu hau izapidetzeko, jarraian azaltzen diren arrazoiengatik:

Aurreko ataletan zehaztu den bezala, Agindu berri honen helburu nagusia honako hauek arautzea da: eskola-jantokiko zerbitzuaren prezio publikoak, salbuespenak eta murrizketak, eta horiek eskatzeko, ebazteko eta kobratzeko prozedura.

Izan ere, eskola-jantokiak arautzen dituen Agindu berriaren izapidetzak, Eskola Garraioari buruzko Dekretu berriari estuki lotuta dagoenak, jantokiko kuota murriztua eskola-garraiorako eskubidetik bereizi nahi izan du. Hori dela eta, arau bakoitzean jasotzen dira, modu autonomoan, ikasleek aipatutako eskubideetaz gozatzeko bete beharreko baldintzak.

Bada, eskola-jantokiei buruzko Agindu hori izapidetzeak agerian utzi du, aurreko paragrafoetan aipatu den bezala, Hezkuntzako Sailburuaren agindu bidez arautu behar direla, prezio publikoak diren aldetik, jantokiko kuotei buruzko guztia, horiek kobratzeko prozedura eta murriztapen eta salbuespenen onuradun izateko baldintzak.



Presa, beraz, honetan datza: eskola-jantokiei buruzko Agindua, azken izapideetan jada, arau-proiektu hau onartzearen eta indarrean jartzearen mende dagoela. Gainera, Hezkuntza Sailaren asmoa zen eskola-jantokiak eta eskola-garraioa arautzen dituen araudi berria indarrean izatea 2023-2024 ikasturterako. Horregatik, eta kontuan hartuta ikasturtearen hasieratik bi hilabete baino gehiago igaro direla, presa handiagoa dago hura onartzeko, argitaratzeko eta indarrean jartzeko; horrela, aurtengo azken hiruhilekoaren amaierarako, aipatutako arau guztiak (Eskola Garraioari buruzko Dekretua, Eskola Jantokien Agindua eta Eskola Jantokiko Zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dituen Agindua) argitaratuta eta indarrean egotea da helburua.

Horrela, bada, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ohartarazpena aztertuta, adierazitakoaren egiazkotasuna egiaztatuta eta ikasturtea hasi zenetik igarotako denbora kontuan hartuta, premiazkoa da beste agindu bat izapidetzea, eskola-jantokiko kuoten prezio publikoak arautzeko eta, aldi berean, eskola-jantokien Agindua arautzen duen prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

Azken batean, agindu-proiektu hau onartzea ezinbesteko baldintza da proposatutako funtsezko helburua lortzeko: jantokiko kuota murriztua eskola-garraiorako eskubidetik bereiztea. Izan ere, asmo hori Hezkuntza Sailak baliabide publikoak arduraz, eraginkortasunez eta zuzentasunez erabiltzeko duen interesaren ondorio baino ez da; izan ere, aurreko paragrafoetan azaldu den bezala, azken urteotan egiaztatu da baliabide horiek modu ez-eraginkorrean gastatzen direla. Hezkuntza-administrazioaren eskumena eta betebeharra da praktika horiek lortzeko neurriak hartzea eta dauzkan baliabide publikoak behar bezala erabiltzen direla bermatzea.

Zalantzarik gabe, beraz, interes publikoa dago jantokien agindu berri hau presazko prozeduraren bidez izapidetzean. Premia hori, funtsean, eskola-jantokien arau erregulatzailea onartzearen komenigarritasunak eta beharrak eragin dute, eta, hain zuzen ere, jantokiko kuota murriztua eskola-garraiorako eskubidetik bereizteak, are gehiago ikasturtea hasi zenetik bi hilabete baino gehiago igaro direnean. Jakina, ezinbestekoa da aipatutako araudia lehenbailehen ezartzea, gastu publikoaren eraginkortasunik ezak ezabatzeko edo saihesteko.

Era horretan, era berean, ikasleei eta familiei segurtasun juridikoa eskaini nahi zaie, hiru arau berriekin (eskola-garraioaren dekretua, eskola-jantokien agindua eta eskola-jantokiko zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dituen agindua), haien premia eta interesetara egokitzen direnak.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako jantoki-zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dituen agindu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzea.



Bigarrena.- Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 6.4 artikulua ematen dizkidan ahalmenak baliatuz, prozedurari presako izapidetzea aplikatzea erabakitzea.

Horren ondorioz, txostenak edo alegazioak egiteko epeak erdira murriztuko dira, eta nahitaezkoak ez diren txostenak alde batera uztea ahalbidetuko du.

Ondorioz, ikastetxe publikoetako jantokien prezio publikoak arautzen dituen agindu-proiektua izapidetzeko, honako atal hauetan xedatutakoari jarraituko zaio:

a) Xedea eta helburua.

Proiektatutako xedapenaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantoki-zerbitzuaren prezio publikoak arautzea. Horrela, alde batetik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren oharrak aintzat hartu dira, eta, bestetik, izapidetu beharreko gaiaren erregulazioa egokitu da indarreko legeriaren arabera dagokion arau-xedapenean.

b) Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua honako hau xedatzen du: "Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da, Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoak, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenak eta hori betearazteko eta bermatzeko behar den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe." Ondorioz, Autonomia Erkidego honi dagokio hezkuntza-zerbitzuen arloa, besteak beste, eskola-jantokiko zerbitzu osagarria.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 31. artikuluari jarraikiz, izaera publikoko eskubide gisa sailkatzen dira "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren erakunde autonomoi eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagozkienak, erakunde horiek ahalmen publikoen titular diren harreman eta egoera juridikoen ondorioz".

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 30. artikulua honela definitzen du prezio publikoa: "Zuzenbide publikoko erregimenean egindako jardura edo zerbitzuengatik ordaintzen diren diru-ordainak, baldin eta jardura horiek ez badira tasatzat hartzen".

Gainera, arau horren 33. artikulua ezartzen duenez, prezio publikoen zenbatekoa "horiek jaso behar dituen organo edo erakundea mende duen saileko sailburuaren aginduz ezarriko da, organo edo erakunde horrek proposatuta".



Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuak arautzen ditu prezio publikoak ordaintzeko eska daitezkeen zerbitzu eta jarduerak. Hain zuzen ere, eranskinaren bosgarren atalean, hezkuntza eta unibertsitate gaietan eskumena duen sailari buruzkoan, eskolako jantoki-zerbitzua jasotzen da, besteak beste.

Laburbilduz, Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez eskolako jantoki-zerbitzuaren prezio publikoak arautzeak bete egiten du, alde batetik, indarrean dagoen legeria, eta, bestetik, zuzendu egiten du orain arteko anomalia juridiko iraunkorra.

Bideragarritasun materialari dagokionez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hitzaurrean xedatutakoa gogoratu behar da. Horren arabera, "egungo gizarteek garrantzi handia ematen diote gazteek jasotzen duten hezkuntzari, horren mende baitaude bai ongizate indibiduala bai kolektiboa. Hezkuntza da baliabiderik egokiena bere nortasuna eraikitzeko, bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko, bere nortasun pertsonala osatzeko eta errealitatearen ulermena egituratzeko, dimentsio kognitiboa, afektiboa eta axiologikoa integratuz. Gizartearentzat, hezkuntza da kultura eta kultura sostengatzen duten jakintzen eta balioen ondarea transmititzeko eta, aldi berean, berritzeko bitartekoa, bere aberastasun-iturrietatik ahalik eta aukera gehien ateratzekoa, bizikidetza demokratikoa eta banakoen desberdintasunetikiko errespetua sustatzekoa, elkartasuna sustatzekoa eta diskriminazioa saihestekoa, beharrezko gizarte-kohesioa lortzeko funtsezko helburuarekin. Gainera, gizarte aurreratuak, dinamikoak eta bidezkoak eratzeko ezinbestekoa den herritartasun demokratikoa, arduratsua, askea eta kritikoa bermatzeko biderik egokiena hezkuntza da. Horregatik, hezkuntza ona da herrialde baten eta bertako herritarren aberastasun eta baliabide nagusia." Zalantzarik gabe, eskola-jantokia estuki lotuta dago hezkuntzarako eskubidearekin, eta betetzen dela bermatzen laguntzen du. Gaur egungo gizartean, hezkuntza-eskubidea bermatzen duen zerbitzu osagarria da eskola-jantokia.

c) Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Arau honek gaiari buruzko araudia osatuko du, eta amaiera emango dio lege-hutsuneari (bai eta antzemandako anomalia juridikoari ere), eta, arau-xedapen egoki eta egokian, honako hauek arautuko ditu: eskola-jantokiko zerbitzuaren prezio publikoak, salbuespenak eta/edo murrizketak egiteko baldintzak, eta eskaera egiteko, ebazteko eta, hala badagokio, kobratzeko prozedura. Horrela, aztergai den gaiari buruzko erregulazio osoa, osoa eta eguneratua lortzen da.

Arau-proiektu honek ez dakar indarreko araudiaren funtsezko aldaketarik. Aurreko ataletan aipatu den bezala, kontua ez da jantokiko kuoten zenbatekoa aldatzea, ezta horiek eskatzeko prozedura edo salbuespenak eta/edo murrizketak jasotzeko baldintzak ere. Kontua da aztergai den gaia indarreko legeriak behar duen arau-xedapenera egokitzea.

d) Aurrekontuan izango duen eragina.

Arau-proiektu honek ez du aurrekontu-eragin nabarmenik izango, ez baitu aldatzen eskola-jantokiko zerbitzuaren kuoten zenbatekoa; izan ere, dagokion arauan



(dagokion lege-mailarekin) eskola-jantokiko kuotei buruzko erregulazioa jaso nahi da, prezio publikoak diren aldetik.

Hala ere, zeharka bada ere, Agindu hau onartzeak eskola-jantokiak arautzen dituen Agindua onartzea ekarriko du. Agindu horren arabera, jantokiko kuota murriztua izateko eskubidea eta eskola-garraiorako eskubidea bereizi egingo dira. Azken aldaketa hori aurreikusten da, eta esanguratsua dela uste da, dagokion memoria ekonomikoan aztertu zen bezala.

e) Gaiaren arabera egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1 artikularen e) letran xedatutakoaren arabera, hasteko aginduak adieraziko ditu proposatutako araudiaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak. Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko hasiera batean behar diren izapideak eta txostenak:

1.- Hasteko agindua egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da. Halaber, agindu hau Legesarea ezagutza partekatua lankidetzaren gunean txertatuko da.

2.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Behin testu arauemailea aldeztu aurretik onartuta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da.

3.- Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabeko eraginari buruzko txostena idatziko da.

4.- Arau-eragina aztertzeke memoria.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikulua ezartzen duenez, espedientea izapidetzeko eskumena duen organoak arau-eragina aztertzeke memoria bat egingo du nahitaez, aipatutako xedapenean aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin.

5.- Memoria ekonomikoa.

Memoria ekonomiko bat egingo da, aurreikusitako eragin ekonomikoa zehazteko eta arauaren aplikazioak arauak eragindako sektore, kolektibo edo eragileengan izango dituen ondorioak ebaluatzeke.

6.- Enpresan duen eraginari buruzko txostena.



Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, txosten hau egin behar da.

7.- Haur eta nerabeen gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko txostena.

Txosten bat egingo da, eta bertan zehaztuko dira egindako izapideak eta haur eta nerabeengan izango duten eragina, haurren interes gorenaren printzipioa betetzen den neurtu eta kontrastatu ahal izateko.

8.- Gazteen gaineko eraginaren ebaluazioa.

Txosten bat egingo da, 18.1 artikulua, 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriari buruzkoa, egindako izapideen eta horiek gazteengan izango duten eraginaren azalpen zehatza jasoko duena.

9.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, 2. artikuluan agindutakoari jarraituz, xedapen orokorrekin euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzekoa.

16. artikuluan xedatutakoaren arabera, txosten horiek guztiak, funtsezkoak ez direnak, aldi berean egingo dira, eta, prozedura hau premiazkoa denez, 15 eguneko epe komunean, aldeztu aurretik onartutako xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

11.- Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Nahitaezko legezketasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokiona, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legea aurreikusitakoaren arabera.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena.
- Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena; izan ere, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 14. artikulua arabera, kontsulta egin behar zaio, nahitaez.

12.- Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra.



Azken espedientea Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

13.- Gardentasuna.

Agindu-proiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

f) Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik adierazgarrienen aurretiazko identifikazioa.

Xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleei eragingo die derrigorrezko irakaskuntzetan eta Haur Hezkuntzan (lehen zikloko eta bigarren zikloko hirugarren maila).

g) Itzulpen edo idazketa elebidunerako teknika.

Agindu-proiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dira.

Halaber, 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena; bertan, besteak beste, adierazten da hizkuntza-berdintasuna arauak egiteko prozesuaren kalitate-bermearen printzipioa izango dela, eta adierazten da arau-xedapen orokor oro Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon behar dela.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena erabiliko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

h) Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea.

Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian (xedapen orokorrak egiteko prozedurako izapidetze-jarraibideak onartzen dituenak) eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakian (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituenak) xedatutakoari jarraikiz.



Hirugarrena.- Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo arduradun.

Laugarrena.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarea lankidetzagunean jakinaraztea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz,

JOKIN BILDARRATZ SORRON
HEZKUNTZAKO SAILBURUA